

Konstituzio Auzitegiari Buruzko
Lege Organikoa
Ley Orgánica del Tribunal
Constitucional



KONSTITUZIO AUZITEGIARI BURUZKO LEGE ORGANIKOA

LEY ORGÁNICA DEL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL

eman ta zabaitzazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

KONSTITUZIO AUZITEGIARI BURUZKO LEGE ORGANIKOA

LEY ORGÁNICA DEL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL

JUAN INAZIO UGARTEMENDIA EZEIZBARRENA
UPV/EHUko Konstituzio Zuzenbideko irakaslea

MAITE ZELAIA GARAGARZA
UPV/EHUko Konstituzio Zuzenbideko irakaslea

IRENE ALDASORO KATARAIN
PATXI PETRIRENA ALTZUGUREN
Itzultzaileak

ANTTON ELOSEGI ALDASORO
UPV/EHUko Euskara Juridikoko irakaslea
Zuzenbideko Euskararen Mintegiko arduraduna

JUAN GARZIA GARMENDIA
UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

JOSÉ ÁNGEL TAMAYO ERRAZQUIN
UPV/EHUko Zuzenbide Erromatarreko irakaslea
Argitalpenaren koordinatzailea

- © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social
- © Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea/Impresión: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

ISBN: 978-84-9860-035-3

Lege gordailua/Depósito legal: BI - 3.624-07

AURKIBIDEA

ÍNDICE

Prólogo. Joseba Azkarraga Rodero	12
Konstituzio Auzitegiari buruzko lege organikoa euskaraz	17
Ley Orgánica 2/1979, de 3 de octubre, del Tribunal Constitucional	21
Título I. Del Tribunal Constitucional	22
Capítulo I. Del Tribunal Constitucional, su organización y atribuciones	22
Capítulo II. De los Magistrados del Tribunal Constitucional	32
Título II. De Los procedimientos de declaración de inconstitucionalidad . . .	38
Capítulo I. Disposiciones generales	38
Capítulo II. Del recurso de inconstitucionalidad	42
Capítulo III. De la cuestión de inconstitucionalidad promovida por Jueces o Tribunales	46
Capítulo IV. De la sentencia en procedimientos de inconstitucionalidad y de sus efectos	48
Título III. Del recurso de amparo constitucional	50
Capítulo I. De la procedencia e interposición del recurso de amparo constitucional	50
Capítulo II. De la tramitación de los recursos de amparo constitucional	56
Capítulo III. De la resolución de los recursos de amparo constitucional y sus efectos	60
Título IV. De los conflictos constitucionales	64
Capítulo I. Disposiciones generales	64
Capítulo II. De los conflictos entre el Estado y las Comunidades Au- tónomas o de éstas entre sí	66

Hitzaurrea. Joseba Azkarraga Rodero	13
Konstituzio Auzitegiari buruzko lege organikoa euskaraz	17
2/1979 Lege Organikoa, 1979ko urriaren 3koa, Konstituzio Auzitegiari buruzkoa	21
I. titulua. Konstituzio Auzitegia	23
I. kapitulua. Konstituzio Auzitegia, haren antolamendua eta eskudantziak	23
II. kapitulua. Konstituzio Auzitegiko magistratuak	33
II. titulua. Konstituziokontrakotasuna deklaratzeko prozedurak	39
I. kapitulua. Xedapen orokorrak	39
II. kapitulua. Konstituziokontrakotasun-errekurtsoa	43
III. kapitulua. Epaileek edo auzitegiek abiarazitako konstituziokontrakotasun-arazoa	47
IV. kapitulua. Konstituziokontrakotasun-prozeduretako epaia eta haren efektuak	49
III. titulua. Konstituzio-babeserako errekurtsioa	51
I. kapitulua. Konstituzio-babeserako errekurtsioa bidezko izatea eta hura jartzea	51
II. kapitulua. Konstituzio-babeserako errekurtsioak izapidetzea	57
III. kapitulua. Konstituzio-babeserako errekurtsioen ebazpena eta haren efektuak	61
IV. titulua. Konstituzio-arloko gatazkak	65
I. kapitulua. Xedapen orokorrak	65
II. kapitulua. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko gatazkak eta autonomia-erkidegoen artekoak	67

<i>Sección 1.^a</i> Conflictos positivos	66
<i>Sección 2.^a</i> Conflictos negativos	72
Capítulo III. De los conflictos entre órganos constitucionales del Estado	76
Capítulo IV. De los conflictos en defensa de la autonomía local	78
Título V. De la impugnación de disposiciones sin fuerza de Ley y resoluciones de las Comunidades Autónomas prevista en el artículo 161.2, de la Constitución	82
Título VI. De la declaración sobre la constitucionalidad de los tratados internacionales	84
Título VII. De las disposiciones comunes sobre procedimiento	84
Título VIII. Del personal al servicio del Tribunal Constitucional	94
Disposiciones transitorias	98
Disposiciones adicionales	102
LÉXICO	113

1. <i>atala.</i>	Gatazka positiboak	67
2. <i>atala.</i>	Gatazka negatiboak	73
III. kapitulua.	Estatuaren konstituzio-organoen arteko gatazkak	77
IV. kapitulua.	Toki-autonomiaren defentsako gatazkak	79
V. titulua.	Autonomia-erkidegoen lege-indarrik gabeko xedapenen eta ebazpenen aurkarapena, Konstituzioaren 161.2 artikuluan aurreikusia	83
VI. titulua.	Nazioarteko tratatuen konstituzionaltasunari buruzko deklarazioa	85
VII. titulua.	Prozedurari buruzko xedapen erkideak	85
VIII. titulua.	Konstituzio Auzitegiaren zerbitzuko pertsonala	95
	Xedapen iragankorrak	99
	Xedapen gehigarriak	103
LEXIKOA		109

Prólogo

Contamos, con la publicación de este nuevo texto bilingüe: la Ley Orgánica del Tribunal Constitucional, con una ocasión más de contribuir a la normalización del euskera, especialmente del euskera jurídico, al disponer de un nuevo instrumento que permitirá a quienes trabajan en la Administración de Justicia y en el mundo del derecho, tener un referente que dote de un «plus» de seguridad jurídica a la utilización del euskera en los textos y documentos forenses.

No en vano, la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias aprobada por el Consejo Europeo el 5 de Noviembre de 1992 en Estrasburgo y ratificada en el año 2001 por el Gobierno Español, entre las medidas específicas para fomentar el empleo de las lenguas regionales o minoritarias en cada uno de los ámbitos de la Administración Pública, en su artículo 9 relaciona las medidas del ámbito de la Administración de Justicia. Entre ellas, se incluye la obligación del Gobierno Español de hacer accesibles en las lenguas regionales o minoritarias, los textos legislativos nacionales más importantes.

Ante la falta de cumplimiento de esta medida, el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social en colaboración con la Universidad del País Vasco, ha tratado de suplir esta carencia a través de su compromiso en la publicación de una colección de textos legales bilingües, del que esta es su cuarta publicación, a la que seguirán otras más.

Se da, además, la circunstancia añadida de que el texto que tenemos el orgullo de presentar, fruto del Convenio de colaboración suscrito entre nuestro Departamento y la Universidad del País Vasco, constituye la regulación del Tribunal Constitucional, órgano que en diversas ocasiones ha sentado jurisprudencia respecto a aspectos relativos a los efectos de la cooficialidad lingüística y su trascendencia constitucional. No debemos olvidar, siguiendo la doctrina formulada en su Sentencia de fecha 82/1986, de 26 de junio, algunas cuestiones de relevancia en su utilización en la Administración de Justicia, ya que señala como efecto de la cooficialidad su *«alcance a todos los poderes públicos sitos en el*

Hitzaurrea

Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoaren euskarazko itzulpen hau argitaratzean, aukera egokia dugu, berriz ere, euskararen normalizazioan laguntzeko, euskara juridikoaren normalizazioan bereziki. Izan ere, justizia-administrazioan eta zuzenbidearen alorrean lanean ari direnek beste tresna bat izango dute, beste erreferentzia bat, testu eta agiri juridikoen euskarari dagokionez segurtasun juridikoa handitzeko.

Europar Kontseiluak 1992ko azaroaren 5ean onetsi eta Espainiako Gobernuak 2001ean berretsi zuen eskualdeetako hizkuntzen eta hizkuntza gutxituen Europako Kartak zenbait neurri zehatz aipatzen ditu eskualdeetako hizkuntzen edo hizkuntza gutxituen erabilera bultzatzeko, administrazio publikoaren esparru guztietan. Besteak beste, 9. artikuluan, justizia administrazioaren esparruko neurriak zehazten ditu. Neurri horien artean sartzen da Espainiako Gobernuaren betebeharrak: nazio-esparruko lege-testu garrantzitsuenak eskualde-hizkuntzetan edo hizkuntza gutxituetan eskuragarri jartzea.

Neurri hori bete ez denez, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan, ahalegina egin du gabezia hori osatzeko, eta konpromisoa hartu du lege-testu elebidunen bilduma bat argitaratzeko. Bilduma horretako laugarren alea da hau, eta etorriko dira gehiago.

Gainera, gure sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmenaren fruitu gisa harro aurkezten dugun testu hau Konstituzio Auzitegia arautzen duen legea da. Konstituzio Auzitegiak, behin baino gehiagotan, jurisprudentzia eman du hizkuntzen koofizialtasunari eta horren konstituzio-garrantziari buruzko gaietan. Ez ditugu ahaztu behar, 1986ko ekainaren 26ko 82/1986 Epaian formulaturiko doktrinari jarraituz, hizkuntza horiek justizia-administrazioan erabiltzeari dagokionez garrantzi handia duten zenbait alderdi; izan ere, koofizialtasunaren ondorioen artean aipatzen du ezen haren irismena «egitate bat gertatu den autonomia-erkidegoan diren botere publiko guztietara» hedatzen

territorio de la Comunidad Autónoma donde se haya producido el hecho». Por tanto, la cooficialidad lo es con respecto a todos los poderes públicos radicados en el territorio autonómico en sentido estricto, siendo, por tanto, el criterio delimitador de la oficialidad del castellano y de la cooficialidad de otras lenguas el territorio, independientemente del carácter estatal, autonómico o local de los distintos poderes públicos

Este texto que se publica, incorpora la reformas introducidas en la Ley Orgánica del Tribunal Constitucional, operadas en la Ley Orgánica 6/2007, de 24 de mayo.

En esta reforma además de propiciar una tramitación más ágil, que coadyuve al ideal de que la justicia funcione bien en plazo y en formas; refuerza a los Jueces Ordinarios como primeros garantes de los derechos constitucionales de la ciudadanía; aunque no ha avanzado en reequilibrar esa suerte de derecho de veto a favor de la Administración del Estado en los conflictos de competencias que pudiera interponer contra normas autonómicas, obteniendo la suspensión de las mismas con tan solo invocar un perjuicio genérico junto a la avocación legal. Esta situación coloca en inferioridad de condiciones a las normas emanadas de los ejecutivos autonómicos; lo que no resulta acorde con los principios de competencia territorial e igualdad.

Para finalizar, quiero reconocer el magnífico trabajo que profesores de derecho y lingüistas de la Universidad del País Vasco, han realizado, de forma coordinada, para que podamos disponer de este nuevo texto, cuya utilidad y gran valor resulta innegable.

Joseba AZKARRAGA RODERO
Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social

dela. Beraz, lurralde autonomikoan kokaturiko botere publiko guztiei dagokie koofizialtasuna, zentzu hertsian, eta lurraldearen irizpide horrexek mugatzen ditu gaztelaniaren ofizialtasuna eta beste hizkuntzen koofizialtasuna, edozein dela ere botere publikoen eremua: estatala, autonomikoa edo tokikoa.

Argitaratzen dugun testu honek bere baitan ditu Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoaren azken erreformak, 2007ko maiatzaren 24ko 6/2007 Lege Organikoak eginak.

Erreforma horretan, izapideak arinago egiteko aukera ematen da, justiziak epez eta formaz egoki funtzionatzen lagunduz, hori baita justiziaren ideala. Horretaz gainera, epaile arruntak sendotzen ditu, herritarren konstituzio-eskubideen lehen bermatzaile gisa. Hala ere, ez du aurrerapenik egin Estatuaren Administrazioak arau autonomikoen kontra jar litzakeen eskumen-gatazkak direla-eta duen beto-eskubide gisako hori berrerekatzeari dagokionez; arau horiek geldieran uztea lor dezake administrazioak, legezko eskumen-bereganatzearekin batera kalte orokor bat alegatze hutsarekin. Egoera horrek gutxiagotasunean uzten ditu gobernu autonomikoetatik sorturiko arauak, eta hori ez dator bat lurralde-eskumenaren eta berdintasunaren irizpideekin.

Ezin amaituko dut aurkezpen hau merezi bezala aitortu gabe Euskal Herriko Unibertsitateko zuzenbide-irakasle eta hizkuntzalariek batera egindako lan bikaina. Lan horri esker, baliagarritasun eta balio ukaezineko beste testu bat daukagu eskura.

Joseba AZKARRAGA RODERO
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburua

Konstituzio Auzitegiari buruzko lege organikoa euskaraz

Esku artean duzun liburu honetan, euskaratu egin dugu Konstituzio Auzitegiari buruzko lege organikoa (2/1979 Lege Organikoa, 1979ko urriaren 3koa, 1979ko urriaren 5eko BOE), gaur egun indarrean den eran, jatorrizko testuari orain arteko aldaketak erantsita: 8/1984¹, 4/1985², 6/1998³, 7/1999⁴, eta 1/2000⁵ lege organikoek eta berriki 6/2007 Lege Organikoak⁶ egindakoak. Gogoratu beharrekoa da azken erreforma horrek berrikuntza franko ekarri dituela, zeintzuen xedea den, besteak beste, babes-errekurtsoa eragin-korrage eta eragimentsuago bihurtzea konstituzioan harentzat aurreikusitako helburuetarako (errekurtso hori onartzeko izapidea aldatuz, errekurtsoa ebazteko gaitasuna emanez auzitegiaren atalei, 55.2 artikuluan aurreikusitako konstituziokontrakotasunezko barne arazoaren izapidea aldatuz); edo konstituziokontrakotasun-arazoa planteatzen den prozesu judizialean alderdi direnen eginkizuna indartzea.

¹ 1984ko abenduaren 26koa (1984ko abenduaren 28ko BOE); horren bidez, kontzientzia-eragozpen kasuko errekurtsoen araubidea eta zigor-araubidea ezarri zen, eta derogatu egin zen 1979ko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 45. artikulua.

² 1985eko ekainaren 7koa (BOE, 1985eko ekainaren 8a); horren bidez, derogatu egin zen 1979ko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren VI. tituluaren bigarren kapitulua.

³ 1988ko ekainaren 9koa (BOE, 1988ko ekainaren 11), 1979ko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 50. eta 86.1 artikulua aldatzekoa.

⁴ 1999ko apirilaren 21ekoa (BOE, 1999ko apirilaren 22a, 1979ko urriaren 3ko 2/1979 Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa aldatzekoa.

⁵ 2000ko urtarrilaren 7koa (BOE, 2000ko urtarrilaren 10a), 1979ko urriaren 3ko 2/1979 Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa aldatzekoa.

⁶ 2007ko maiatzaren 24koa (BOE, 2007ko maiatzaren 25a), 1979ko urriaren 3ko 2/1979 Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa aldatzen duena.

Doktrina espezializatuaren arabera⁷, 1978ko Espainiako Konstituzioaren ezaugarri nagusietako bat —gaur egungo edozein konstituzio demokratikorekin gertatzen den bezala—, konstituzio arautzaile bat izatea da; ez agiri edo testu politiko bat izatea, besterik gabe. Bestela esanda, gorenko arau juridikoa izateko asmoarekin egindako Konstituzio bat da Espainiakoa, ordenamendu juridikoa eratzen duten gainerako jarduketa eta erabaki juridiko guztien baliozkotasunaren eta eraginkortasunaren iturri izateko borondatearekin egina. Eta Konstituzioak arau juridiko gisa duen eraginkortasuna segurtatzeko Konstituzioak berak aurreikusitako oinarrizko tresna Konstituzio Auzitegia da (IX. titulua, 159-165 artikulua). Espainiako Konstituzioak, auzitegi hori irudikatzean, gainerakoetatik independentea den konstituzio-organo bat irudikatzen du, egiazko jurisdikzioa (konstituzio-jurisdikzioa) hezurramitzen duen organo bat, jurisdikzio arruntetik berezia, hots, Botere Judizialari esleitutako jurisdikzioetik berezia. Konstituzio Auzitegiaren 1.1 artikulua dioenez, «Konstituzio Auzitegia, Konstituzioaren interpretatzaile gorena den aldetik, independentea da beste konstituzio-organoetatik, eta ez dago menderaturik Konstituzioari eta lege organiko honi baino». Nolanahi ere, Konstituzio Auzitegia ez da Konstituzioaren interpretatzaile eta aplikatzaile bakarra, zeren eta Konstituzioak, arau juridiko gorena den aldetik, lotura-indarra du botere publiko guztientzat eta herritarrentzat (Konstituzioaren 9.1 artikulua). Haien artean daude, bistan denez, jurisdikzio-ordena guztiak, Konstituzioa interpretatu beharko baitute beren eguneroko zereginean, haren interprete gorenak —hots, Konstituzio Auzitegiak (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 1.1 artikulua)— ematen dion interpretazioarekin ados interpretatu ere. Interpretatzaile-lan hori, ebatzea egokitzen zaion prozeduretan ematen dituen ebazpenen bitartez egiten du Auzitegiak. Prozedura horietan, Konstituzioak eta Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoak berak ematen dizkioten eskumenak baliatzen ditu, Konstituzioak funtsezko arau juridiko gisa duen eraginkortasunaren defentsan: lege-indarreko arauen konstituzionaltasuna kontrolatzeko eskumena (konstituziokontarakotasun-errekurtsoen bitartez, konstituziokontarakotasun-arazoen bitartez eta nazioarteko tratatuak indarrean sartu aurretik kontrolatzeko prozeduraren bitartez); Konstituzioaren 53.2 artikuluan jasotako eskubide eta askatasunak Estatuaren azken berme den aldetik babesteko eskumena (babes-errekurtsoren bitartez); «konstituzionaltasun-blokean» ezarritako boterearen lurralde-banaketa bermatzeko eskumena (Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumengatazkak eta autonomia-erkidegoen beren artekoak ebartziz); edo Estatuaren

⁷ Cfr., adibidez, L. LÓPEZ GUERRA *et alii*, *Derecho Constitucional. Volumen II. Los poderes del Estado. La organización territorial del Estado*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2007 (7. edizioa), 245. orrialdea eta hurrengoak.

botereen arteko eskumen-banaketa kontrolatzeko eskumena (konstituzio-organoen arteko eskudantzia-gatazken bitartez); autonomia-erkidegoetako organoen xedapen eta ebazpenen konstituzionaltasuna kontrolatzeko eskumena (Konstituzioaren 161.1 artikuluan aurreikusitako aurkarapenen bitartez); konstituzionalki bermaturiko toki-autonomia bermatzeko aurreikusitako eskumena, autonomia horri erasaten dioten lege-indarreko arauen kontra; edo auzitegiaren beraren jurisdikzioa defendatzeko emandako eskumena.

Adierazi dugu, laburki bederen, zeinen garrantzitsua den Konstituzio Auzitegia, eta organo horren konstituzio-zeregina garatzeko eginkizuna du lege organiko honek, eta euskaraz ere izatea zulpen hau egiteko arrazoia, hain zuzen, hauxe da: euskaraz ere izatea. Izan ere, Konstituzioaren 165. artikulua araberan, lege honek arautzen ditu «Konstituzio Auzitegiaren funtzionamendua, ki-deen estatutua, hartara jotzean segitu beharreko prozedura eta akzioak baliatzeko baldintzak».

Gogora dezagun testu hau itzultzeko eta argitaratzeko ekimena jarduera orokorrako baten barnean kokatua dagoela, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak espainiar testu juridiko oinarrikoenak euskaratzeko sinaturiko hitzarmenaren barnean; Espainiako Konstituzioaren itzulpen eta argitalpenarekin abiatu zen jarduera hori, hain zuzen. Zuzenbide Fakultateari dagokionez, Euskara Mintegiak ekin dio hitzarmena betetzeko lanari. Itzulpenean jarraitutako metodoa legegariaren eta itzultzaileen arteko elkarlanean oinarritu da. Itzultzaileen aldetik, Irene Aldasoro eta Patxi Petrarena aritu dira, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuaren gidaritzapean; Zuzenbide Fakultateko irakasleen aldetik, berriz, Juan Inazio Ugartemendia eta Maite Zelaia, biak fakultate horretako Konstituzio Zuzenbideko irakasleak, eta Antton Elozegi, fakultateko Euskara Teknikoaren ardura-duna.

Erabilgarri eta baliagarri gertatuko ahal zaie testu hau zuzenbidearekin lanean edo harremanetan dabiltzan euskaldunei.

Donostian, 2007ko urrian

Juan Inazio UGARTEMENDIA EZEIZABARRENA
Maite ZELAIA GARAGARZA

2/1979 LEGE ORGANIKOA,
1979KO URRIAREN 3KOA,
KONSTITUZIO AUZITEGIARI
BURUZKOA*

LEY ORGÁNICA 2/1979,
DE 3 DE OCTUBRE,
DEL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL**

* 8/1984, 4/1985, 6/1988, 7/1999, 1/2000 eta 6/2007 lege organikoek aldatua.

** Modificada por las Leyes Orgánicas 8/1984, 4/1985, 6/1988, 7/1999, 1/2000 y 6/2007.

TÍTULO I
DEL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL

CAPÍTULO I

Del Tribunal Constitucional, su organización y atribuciones

Artículo 1

1. El Tribunal Constitucional, como intérprete supremo de la Constitución, es independiente de los demás órganos constitucionales y está sometido sólo a la Constitución y a la presente Ley Orgánica.

2. Es único en su orden y extiende su jurisdicción a todo el territorio nacional.

Artículo 2

1. El Tribunal Constitucional conocerá en los casos y en la forma que esta Ley determina:

a) Del recurso y de la cuestión de inconstitucionalidad contra Leyes, disposiciones normativas o actos con fuerza de Ley.

b) Del recurso de amparo por violación de los derechos y libertades públicos relacionados en el artículo 53.2 de la Constitución.

c) De los conflictos constitucionales de competencia entre el Estado y las Comunidades Autónomas o de los de éstas entre sí.

d) De los conflictos entre los órganos constitucionales del Estado.

d) bis. De los conflictos en defensa de la autonomía local.

e) De la declaración sobre la constitucionalidad de los Tratados Internacionales.

f) De las impugnaciones previstas en el número 2 del artículo 161 de la Constitución.

g) De la verificación de los nombramientos de los Magistrados del Tribunal Constitucional, para juzgar si los mismos reúnen los requisitos requeridos por la Constitución y la presente Ley.

h) De las demás materias que le atribuyen la Constitución y las Leyes orgánicas.

I. TITULUA
KONSTITUZIO AUZITEGIA

I. KAPITULUA

Konstituzio Auzitegia, haren antolamendua eta eskudantziak

1. artikulua

1. Konstituzio Auzitegia, Konstituzioaren interpretatzaile gorena den aldetik, independentea da beste konstituzio-organoetatik, eta ez dago menderaturik Konstituzioari eta lege organiko honi baino.

2. Bakarra da bere ordenan, eta nazio-lurralde osoan du jurisdikzioa.

2. artikulua

1. Konstituzio Auzitegiaren ardura izango dira, lege honek ezarritako kasuetan eta moduan:

a) Legeen eta lege-indarreko arau-xedapenen edo egintzen aurkako konstituziokontraktasun-errekurtsoa eta -arazoa.

b) Konstituzioaren 53.2 artikuluan zerrendaturiko eskubide eta askatasun publikoak urratzeagatik jarritako babes-errekurtsoa.

c) Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean edo autonomia-erkidegoen artean sorturiko konstituzio-arloko eskumen-gatazkak.

d) Estatuaren konstituzio-organoen arteko gatazkak.

d) bis. Toki-autonomiaren defentsan sorturiko gatazkak.

e) Nazioarteko tratatuen konstituzionaltasunari buruzko deklarazioa.

f) Konstituzioaren 161. artikulua 2. zenbakian aurreikusitako aurkarapenak.

g) Konstituzio Auzitegiko magistratuen izendapenak aztertzea, Konstituzioan eta lege honetan eskatutako betekizunak betetzen dituzten epaitzeko.

h) Konstituzioak eta lege organikoek esleitzen dizkieten gainerako gaiak.

2. El Tribunal Constitucional podrá dictar reglamentos sobre su propio funcionamiento y organización, así como sobre el régimen de su personal y servicios, dentro del ámbito de la presente Ley. Estos reglamentos, que deberán ser aprobados por el Tribunal en Pleno, se publicarán en el «Boletín Oficial del Estado», autorizados por su Presidente.

Artículo 3

La competencia del Tribunal Constitucional se extiende al conocimiento y decisión de las cuestiones prejudiciales e incidentales no pertenecientes al orden constitucional, directamente relacionadas con la materia de que conoce, a los solos efectos del enjuiciamiento constitucional de ésta.

Artículo 4

1. En ningún caso se podrá promover cuestión de jurisdicción o competencia al Tribunal Constitucional. El Tribunal Constitucional delimitará el ámbito de su jurisdicción y adoptará cuantas medidas sean necesarias para preservarla, incluyendo la declaración de nulidad de aquellos actos o resoluciones que la menoscaben; asimismo podrá apreciar de oficio o a instancia de parte su competencia o incompetencia.

2. Las resoluciones del Tribunal Constitucional no podrán ser enjuiciadas por ningún órgano jurisdiccional del Estado.

3. Cuando el Tribunal Constitucional anule un acto o resolución que contravenga lo dispuesto en los dos apartados anteriores lo ha de hacer motivadamente y previa audiencia al Ministerio Fiscal y al órgano autor del acto o resolución.

Artículo 5

El Tribunal Constitucional está integrado por doce miembros, con el título de Magistrados del Tribunal Constitucional.

Artículo 6

1. El Tribunal Constitucional actúa en Pleno, en Sala o en Sección.

2. El Pleno está integrado por todos los Magistrados del Tribunal. Lo preside el Presidente del Tribunal y, en su defecto, el Vicepresidente y, a falta de ambos, el Magistrado más antiguo en el cargo y, en caso de igual antigüedad, el de mayor edad.

2. Konstituzio Auzitegiak erregelamenduak eman ahal izango ditu bere funtzionamendu eta antolamenduaz, eta orobat bere pertsonalaren eta zerbitzuen araubidez, lege honen eremuaren barruan. Erregelamenduok osoko bilkuran onetsi beharko ditu Auzitegiak, eta, presidenteak eskuetsirik, «Estatuko Aldizkari Ofizial»ean argitaratuko dira.

3. artikulua

Konstituzio Auzitegiaren eskumen da, halaber, konstituzio-ordenakoak ez diren baina aztertzen ari den gaiarekin zuzeneko erlazioa duten judizio aurreko arazoez eta intzidente-arazoez arduratzea eta haiak erabakitzea, gaiaren konstituzionaltasunari ez besteri dagokionez.

4. artikulua

1. Konstituzio Auzitegiari ezin abiaraziko zaio inoiz jurisdikzio- edo eskumen-arazorik. Konstituzio auzitegiak zedarrituko du bere jurisdikzio-eremua, eta hura babesteko behar diren neurriak hartuko; besteak beste, jurisdikzio horri erasaten dioten egintza edo ebazpenak deusez deklaratzeko. Orobat balioetsi ahal izango du bere eskumena edo eskumenik eza, ofizioz edo alderdi-eskariz.

2. Konstituzio Auzitegiaren ebazpenak ezin epaituko ditu estatuko ezein jurisdikzio-organok.

3. Konstituzio Auzitegiak, aurreko bi zenbakietan ezarritakoa hausten duen egintza edo ebazpen bat deuseztatzen duenean, zioak eman beharko ditu, eta aurrez entzueraz eman Fiskaltzari eta egintza edo ebazpena eman duen organoari.

5. artikulua

Hamabi kidek osatuko dute Konstituzio Auzitegia, eta Konstituzio Auzitegiko magistratu titulua izango dute kideok.

6. artikulua

1. Konstituzio Auzitegiak osoko bilkuran, salan edo atalean jarduten du.

2. Auzitegiko magistratu guztiek osatzen dute osoko bilkura. Auzitegiko presidentea da osoko bilkuraren buru; hura egon ezean, presidenteordea; biak falta badira, karguan denbora gehien daraman magistratua, eta, antzintasun berekoen artean, adin handienekoa.

Artículo 7

1. El Tribunal Constitucional consta de dos Salas. Cada Sala está compuesta por seis Magistrados nombrados por el Tribunal en Pleno.

2. El Presidente del Tribunal lo es también de la Sala Primera, que presidirá en su defecto, el Magistrado más antiguo y, en caso de igual antigüedad, el de mayor edad.

3. El Vicepresidente del Tribunal presidirá en la Sala Segunda y, en su defecto, el Magistrado más antiguo y, en caso de igual antigüedad, el de mayor edad.

Artículo 8

1. Para el despacho ordinario y la decisión o propuesta, según proceda, sobre la admisibilidad o inadmisibilidad de procesos constitucionales, el Pleno y las Salas constituirán Secciones compuestas por el respectivo Presidente o quien le sustituya y dos Magistrados.

2. Se dará cuenta al Pleno de las propuestas de admisión o inadmisión de asuntos de su competencia. En el caso de admisión, el Pleno podrá deferir a la Sala que corresponda el conocimiento del asunto de que se trate, en los términos previstos en esta ley.

3. Podrá corresponder también a las Secciones el conocimiento y resolución de aquellos asuntos de amparo que la Sala correspondiente les defiera en los términos previstos en esta ley.

Artículo 9

1. El Tribunal en Pleno elige de entre sus miembros por votación secreta a su Presidente y propone al Rey su nombramiento.

2. En primera votación se requerirá la mayoría absoluta. Si ésta no se alcanzase se procederá a una segunda votación, en la que resultará elegido quien obtuviese mayor número de votos. En caso de empate se efectuará una última votación y si éste se repitiese, será propuesto el de mayor antigüedad en el cargo y en el caso de igualdad el de mayor edad.

3. El nombre del elegido se elevará al Rey para su nombramiento por un período de tres años, expirado el cual podrá ser reelegido por una sola vez.

4. El Tribunal en Pleno elegirá entre sus miembros, por el procedimiento señalado en el apartado 2 de este artículo y por el mismo período de tres años,

7. artikulua

1. Konstituzio Auzitegiak bi sala ditu. Auzitegiak osoko bilkuran izendatutako sei magistratuk osatzen dute sala bakoitza.

2. Auzitegiak presidentea izango da Lehenengo Salako presidente ere; hura egon ezean, antzinasun handieneko magistratua izango da Lehenengo Salako buru, eta, antzinasun berekoen artean, adin handienekoa.

3. Auzitegiak presidenteordea izango da Bigarren Salako buru; hura egon ezean, antzinasun handieneko magistratua, eta, antzinasun berekoen artean, adin handienekoa.

8. artikulua

1. Jarduera arrunterako eta konstituzio-prozesuak onartzeari edo ez onartzeari buruzko erabakia hartzeko edo, hala badagokio, hartarako proposamena egiteko, atalak eratuko dituzte osoko bilkurak eta salek; atal bakoitzak bere presidentea edo haren ordezkoa eta bi magistratu izango ditu.

2. Bere eskumeneko diren auziak onartzeko edo ez onartzeko proposamenen kontu emango zaio osoko bilkurari. Auzia onartzen den kasuan, osoko bilkurak dagokion salaren esku utzi ahal izango du hartaz arduratzea, lege honetan aurreikusitako moduan.

3. Orobat egokitu dakieke atalei dagokion salak haien esku uzten dituen babes-azuziez arduratzea eta haiei buruzko ebazpena ematea, lege honetan aurreikusitako moduan.

9. artikulua

1. Auzitegiak osoko bilkuran eta bozketa sekretuan aukeratuko du presidentea kideen artean, eta Erregeari proposatuko dio haren izendapena.

2. Lehenengo bozketan, gehiengo absolutua beharko da. Lortu ezean, bigarren bozketa egingo da, eta boto gehien lortu duena aukeratuko. Berdinketa gertatuz gero, azken bozketa egingo da; berriro berdinketa gertatuz gero, karguan denbora gehien daramana proposatuko da, eta horretan berdintasuna izanez gero, adin handienekoa.

3. Hautatuaren izena Erregeari igorriko zaio, hiru urterako izendatua izan dadin; epe hori amaitzean, beste behin bakarrik aukeratu ahal izango da berriro.

4. Auzitegiak, osoko bilkuran, presidenteorde bat aukeratuko du bere kideen artean, artikulua honen 2. zenbakian adierazitako prozeduraren bidez eta

un Vicepresidente, al que incumbe sustituir al Presidente en caso de vacante, ausencia u otro motivo legal y presidir la Sala Segunda.

Artículo 10

1. El Tribunal en Pleno conoce de los siguientes asuntos:

a) De la constitucionalidad o inconstitucionalidad de los tratados internacionales.

b) De los recursos de inconstitucionalidad contra las leyes y demás disposiciones con valor de ley, excepto los de mera aplicación de doctrina, cuyo conocimiento podrá atribuirse a las Salas en el trámite de admisión. Al atribuir a la Sala el conocimiento del recurso, el Pleno deberá señalar la doctrina constitucional de aplicación.

c) De las cuestiones de constitucionalidad que reserve para sí; las demás deberán deferirse a las Salas según un turno objetivo.

d) De los conflictos constitucionales de competencia entre el Estado y las Comunidades Autónomas o de los de éstas entre sí.

e) De las impugnaciones previstas en el apartado 2 del artículo 161 de la Constitución.

f) De los conflictos en defensa de la autonomía local.

g) De los conflictos entre los órganos constitucionales del Estado.

h) De las anulaciones en defensa de la jurisdicción del Tribunal previstas en el artículo 4.3.

i) De la verificación del cumplimiento de los requisitos exigidos para el nombramiento de Magistrado del Tribunal Constitucional.

j) Del nombramiento de los Magistrados que han de integrar cada una de las Salas.

k) De la recusación de los Magistrados del Tribunal Constitucional.

l) Del cese de los Magistrados del Tribunal Constitucional en los casos previstos en el artículo 23.

m) De la aprobación y modificación de los reglamentos del Tribunal.

n) De cualquier otro asunto que sea competencia del Tribunal pero recabe para sí el Pleno, a propuesta del Presidente o de tres Magistrados, así como de los demás asuntos que le puedan ser atribuidos expresamente por una ley orgánica.

hiru urterako hura ere; presidenteordeari dagokio presidentearen ordezkotza izatea presidentetzat hartu dagoenean, presidentea ez dagoenean edo legezko beste zati bat denean, eta orobat Bigarren Salaren buru izatea.

10. artikulua

1. Auzitegiaren osoko bilkura gai hauetaz arduratuko da:

a) Nazioarteko tratatuen konstituzionaltasuna eta konstituziokontrakotasuna.

b) Legeen eta lege-balioko gainerako xedapenen kontrako konstituziokontrakotasun-errekurtsoak, doktrina aplikatze hutsekoak salbu; horien ardura salei esleitu ahal izango zaie onartze-izapidetan. Errekurtsoaren ardura salari esleitzean, zer konstituzio-doktrina aplikatzea dagokion zehaztu beharko du osoko bilkurak.

c) Beretzat erreserbatzen dituen konstituzionaltasun-arazoak; gainerakoak salei utzi beharko zaizkie, txanda objektibo bati jarraituz.

d) Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko konstituzio-arloko eskumen-gatazkak edo autonomia-erkidegoen artekoak.

e) Konstituzioaren 161. artikuluko 2. zenbakian aurreikusitako aurkarapeanak.

f) Toki-autonomiaren defentsan sorturiko gatazkak.

g) Estatuaren konstituzio-organoen arteko gatazkak.

h) Auzitegiaren jurisdikzioaren defentsako deuseztapenak, 4.3 artikuluan aurreikusiak.

i) Konstituzio Auzitegiko magistratu izendatzeko betekizunak betetzen diren egiaztatzea.

j) Sala bakoitza osatzeko magistratuen izendapena.

k) Konstituzio Auzitegiko magistratuen errekusazioa.

l) Lege honen 23. artikuluan aurreikusitako kasuetan, Konstituzio Auzitegiko magistratuen kargu-uzteak.

m) Auzitegiaren erregelamenduak onestea eta aldatzea.

n) Auzitegiaren eskumeneko beste edozein auzi, presidentek edo hiru magistratuk proposaturik osoko bilkurak beretzat hartu badu, eta orobat lege organiko batek espresuki esleituriko gainerako auziak.

2. En los casos previstos en los párrafos d), e) y f) del apartado anterior, en el trámite de admisión la decisión de fondo podrá atribuirse a la Sala que corresponda según un turno objetivo, lo que se comunicará a las partes.

3. El Tribunal en Pleno, en ejercicio de su autonomía como órgano constitucional, elabora su presupuesto, que se integra como una sección independiente dentro de los Presupuestos Generales del Estado.

Artículo 11

1. Las Salas del Tribunal Constitucional conocerán de los asuntos que, atribuidos a la justicia constitucional, no sean de la competencia del Pleno.

2. También conocerán las Salas de aquellas cuestiones que, habiendo sido atribuidas al conocimiento de las Secciones, entiendan que por su importancia deba resolver la propia Sala.

Artículo 12

La distribución de asuntos entre las Salas del Tribunal se efectuará según un turno establecido por el Pleno a propuesta de su Presidente.

Artículo 13

Cuando una Sala considere necesario apartarse en cualquier punto de la doctrina constitucional precedente sentada por el Tribunal, la cuestión se someterá a la decisión del Pleno.

Artículo 14

El Tribunal en Pleno puede adoptar acuerdos cuando estén presentes, al menos, dos tercios de los miembros que en cada momento lo compongan. Los acuerdos de las Salas requerirán asimismo la presencia de dos tercios de los miembros que en cada momento las compongan. En las Secciones se requerirá la presencia de dos miembros, salvo que haya discrepancia, requiriéndose entonces la de sus tres miembros.

Artículo 15

El Presidente del Tribunal Constitucional ejerce la representación del Tribunal, convoca y preside el Tribunal en Pleno y convoca las Salas; adopta las medidas precisas para el funcionamiento del Tribunal, de las Salas y de las Secciones; comunica a las Cámaras, al Gobierno o al Consejo General del Poder

2. Aurreko zenbakiko d), e) eta f) letretan aurreikusitako kasuetan, txanda objektibo baten arabera dagokion salari esleitu ahal izango zaio, onartze-izapidetan, edukiaz erabakitzea, eta alderdiei jakinaraziko zaie hori.

3. Auzitegiaren osoko bilkurak, konstituzio-organo den aldetik duen autonomiaz diharduelarik, bere aurrekontua lantzen du; aurrekontu hori atal bereizi moduan sartzen da Estatuaren Aurrekontu Orokorren barruan.

11. artikulua

1. Konstituzio Auzitegiko salen ardura izango dira konstituzio-arloko justiziari esleituak zaizkion eta osoko bilkuraren eskumeneke ez diren auziak.

2. Hasiara batean atalei esleituriko auziez ere arduratuko dira salak, duten garrantziagatik berek ebatzi beharrekoak direla irizten badiote.

12. artikulua

Auzitegiko salen artean auziak banatzeko, txanda bat ezarriko du osoko bilkurak, presidentearen proposamenez.

13. artikulua

Sala batek beharrezko ikusten badu Auzitegiak ezarritako aurreko konstituzio-doktrinatik aldentzea punturen batean, osoko bilkurak erabaki beharko du horren gainean.

14 artikulua

Auzitegiaren osoko bilkurak erabakiak hartu ahal izateko, bertan egon beharko dute, gutxienez, une horretan osoko bilkura osatzen duten kideen bi herenek. Salen erabakietarako ere, une horretan sala osatzen duten kideen bi herenek elkartu beharko dute. Ataletan, bi kide beharko dira, baina, desadostasunik izanez gero, hiru kideek elkartu beharko dute.

15. artikulua

Konstituzio Auzitegiko presidenteari dagokio Konstituzio Auzitegiaren ordezkari izatea, Auzitegiaren osoko bilkurara deitzea eta haren buru egitea, eta orobat salen bilkuretara deitzea; Auzitegiaren, salen eta atalen funtzionamendurako behar diren neurriak hartzea; Ganberei, Gobernuari edo Botere Judizial-

Judicial, en cada caso, las vacantes; nombra a los letrados, convoca los concursos para cubrir las plazas de funcionarios y los puestos de personal laboral, y ejerce las potestades administrativas sobre el personal del Tribunal.

CAPÍTULO II

De los Magistrados del Tribunal Constitucional

Artículo 16

1. Los Magistrados del Tribunal Constitucional serán nombrados por el Rey, a propuesta de las Cámaras, del Gobierno y del Consejo General del Poder Judicial, en las condiciones que establece el artículo 159.1 de la Constitución.

Los Magistrados propuestos por el Senado serán elegidos entre los candidatos presentados por las Asambleas Legislativas de las Comunidades Autónomas en los términos que determine el Reglamento de la Cámara.

2. Los candidatos propuestos por el Congreso y por el Senado deberán comparecer previamente ante las correspondientes Comisiones en los términos que dispongan los respectivos Reglamentos.

3. La designación para el cargo de Magistrado del Tribunal Constitucional se hará por nueve años, renovándose el Tribunal por terceras partes cada tres. A partir de ese momento se producirá la elección del Presidente y Vicepresidente de acuerdo con lo previsto en el artículo 9. Si el mandato de tres años para el que fueron designados como Presidente y Vicepresidente no coincidiera con la renovación del Tribunal Constitucional, tal mandato quedará prorrogado para que finalice en el momento en que dicha renovación se produzca y tomen posesión los nuevos Magistrados.

4. Ningún Magistrado podrá ser propuesto al Rey para otro período inmediato, salvo que hubiera ocupado el cargo por un plazo no superior a tres años.

Artículo 17

1. Antes de los cuatro meses previos a la fecha de expiración de los nombramientos, el Presidente del Tribunal solicitará de los Presidentes de los órganos que han de hacer las propuestas para la designación de los nuevos Magistrados, que inicien el procedimiento para ello.

laren Kontseilu Nagusiari, kasuan-kasuan, kargu-hutsaldien berri ematea; le-traduak izendatzea, funtzionario-plazak eta lan-kontratudun langileen pos-tuak betetzeko lehiaketetarako deialdia egitea, eta Auzitegiko pertsonalareki-ko administrazio-ahalak baliatzea.

II. KAPITULUA

Konstituzio Auzitegiko magistratuak

16. artikulua

1. Konstituzio Auzitegiko magistratuak Erregeak izendatuko ditu, Ganbe-rek, Gobernuak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak proposaturik, Konstituzioaren 159.1 artikulua ezartzen duen moduan.

Autonomia-erkidegoetako legebiltzarrek aurkezturiko hautagaien artetik hautatuko dira Senatuak proposaturiko magistratuak, ganberaren erregelamen-duak ezartzen duen moduan.

2. Kongresuak eta Senatuak proposaturiko hautagaiek dagokion ganbera-ren Batzordearen aurrean agertu beharko dute aurrez, ganbera bakoitzaren erre-gelamenduak xedatzen duen moduan.

3) Bederatzi urterako izendatuko dira Konstituzio Auzitegiko magistra-tuak, eta hiru urtez behin herenka berrituko da Auzitegia. Une horretatik au-rreara aukeratuko dira presidentea eta presidenteordea, 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Presidenteari eta presidenteordeari emandako hiru urteko agintaldia eta Konstituzio Auzitegiaren berritze-aldia batera ez badatoz, luzatu egingo da haien agintaldia, aipaturiko berritzea gertatzearekin eta magistratu berrien kargu-hartzearekin batera amai dadin.

4. Magistraturik ezin proposatuko zaio Erregeari berehalako beste aldi ba-terako, non eta karguan hiru urte baino gutxiago egona ez den.

17. artikulua

1. Magistratu-aldiak amaitu aurreko lau hilabeteak baino lehen, magistratu berriak izendatzeko prozedura abian jar dezatela eskatuko die Auzitegiko presi-denteak horretarako proposamenak egin behar dituzten organoetako presiden-teei.

2. Los Magistrados del Tribunal Constitucional continuarán en el ejercicio de sus funciones hasta que hayan tomado posesión quienes hubieren de sucederles.

Artículo 18

Los miembros del Tribunal Constitucional deberán ser nombrados entre ciudadanos españoles que sean Magistrados, Fiscales, Profesores de Universidad, funcionarios públicos o Abogados, todos ellos juristas de reconocida competencia con más de quince años de ejercicio profesional o en activo en la respectiva función.

Artículo 19

1. El cargo de Magistrado del Tribunal Constitucional es incompatible: primero, con el de Defensor del Pueblo; segundo, con el de Diputado y Senador; tercero, con cualquier cargo político o administrativo del Estado, las Comunidades Autónomas, las provincias u otras Entidades locales; cuarto, con el ejercicio de cualquier jurisdicción o actividad propia de la carrera judicial o fiscal; quinto, con empleos de todas clases en los Tribunales y Juzgados de cualquier orden jurisdiccional; sexto, con el desempeño de funciones directivas en los partidos políticos, sindicatos, asociaciones, fundaciones y colegios profesionales y con toda clase de empleo al servicio de los mismos; séptimo, con el desempeño de actividades profesionales o mercantiles. En lo demás, los miembros del Tribunal Constitucional tendrán las incompatibilidades propias de los miembros del Poder Judicial.

2. Cuando concurriere causa de incompatibilidad en quien fuere propuesto como Magistrado del Tribunal, deberá, antes de tomar posesión, cesar en el cargo o en la actividad incompatible. Si no lo hiciera en el plazo de diez días siguientes a la propuesta, se entenderá que no acepta el cargo de Magistrado del Tribunal Constitucional. La misma regla se aplicará en el caso de incompatibilidad sobrevenida.

Artículo 20

Los miembros de la carrera judicial y fiscal y, en general, los funcionarios públicos nombrados Magistrados y letrados del Tribunal pasarán a la situación de servicios especiales en su carrera de origen.

Artículo 21

El Presidente y los demás Magistrados del Tribunal Constitucional prestarán, al asumir su cargo ante el Rey, el siguiente juramento o promesa:

2. Konstituzio Auzitegiko magistratuek beren funtzioak betetzen jarraituko dute haien ondorengoek kargua hartu arte.

18. artikulua

Magistratu, fiskal, unibertsitateko irakasle, funtzionario publiko edo abokatu diren herritar espainiarren artetik izendatu beharko dira Konstituzio Auzitegiko kideak; denek ere gaitasun-sonaren jabe diren juristak izan beharko dute, hamabost urte baino gehiago daramatenak jardun profesionalean edo dagokien funtzioan aktibo.

19. artikulua

1. Konstituzio Auzitegiko magistratu-karguarekin bateraezina da: lehenik, Herriaren Defendatzaile izatea; bigarrenik, diputatu edo senatari izatea; hirugarrenik, Estatuko, autonomia-erkidegoetako, probintzietako edo beste toki-entitate batzuetako kargu politiko edo administratiboren bat izatea; laugarrenik, karrera judicial edo fiskalari dagokion jurisdikzio edo jardueraren batean aritzea; bosgarrenik, edozein jurisdikzio-ordenatako auzitegi edo epaitegietan enpleguren bat izatea; seigarrenik, alderdi politiko, sindikatu, elkarte, fundazio eta elkargo profesionaletako zuzendaritza-lanetan jardutea eta haien zerbitzuko enpleguren bat izatea; zazpigarrenik, jarduera profesionalean edo merkataritzan aritzea. Gainerakoan, Botere Judizialeko kideen bateraezintasun berak izango dituzte Konstituzio Auzitegiko kideek.

2. Auzitegiko magistratutarako proposatua izan denak, bateraezintasun-kausaren bat badu, utzi egin beharko du, magistratu-kargua hartu aurretik, harekin bateraezina den kargu edo jarduera. Proposatua izan ondorengo hamar egunen epean uzten ez badu, ulertuko da ez duela onartzen Konstituzio Auzitegiko magistratu-kargua. Erregela bera aplikatuko da kargua hartu eta gero gertatzen bada bateraezintasuna.

20. artikulua

Auzitegiko magistratu edo letradu izendaturiko karrera judicial eta fiskaleko kideak, eta oro har gainerako funtzionario publikoak, zerbitzu bereziko egoeran geratuko dira jatorriko karreran.

21. artikulua

Konstituzio Auzitegiko presidentek eta gainerako magistratuek honako zin edo promes hau egingo dute Erregearen aurrean kargua hartzean:

«Juro (o prometo) guardar y hacer guardar fielmente y en todo tiempo la Constitución Española, lealtad a la Corona y cumplir mis deberes como Magistrado Constitucional.»

Artículo 22

Los Magistrados del Tribunal Constitucional ejercerán su función de acuerdo con los principios de imparcialidad y dignidad inherentes a la misma; no podrán ser perseguidos por las opiniones expresadas en el ejercicio de sus funciones; serán inamovibles y no podrán ser destituidos ni suspendidos sino por alguna de las causas que esta Ley establece.

Artículo 23

1. Los Magistrados del Tribunal Constitucional cesan por alguna de las causas siguientes: Primero, por renuncia aceptada por el Presidente del Tribunal; segundo, por expiración del plazo de su nombramiento; tercero, por incurrir en alguna causa de incapacidad de las previstas para los miembros del Poder Judicial; cuarto, por incompatibilidad sobrevenida; quinto, por dejar de atender con diligencia los deberes de su cargo; sexto, por violar la reserva propia de su función; séptimo, por haber sido declarado responsable civilmente por dolo o condenado por delito doloso o por culpa grave.

2. El cese o la vacante en el cargo de Magistrado del Tribunal Constitucional, en los casos primero y segundo, así como en el de fallecimiento, se decretará por el Presidente. En los restantes supuestos decidirá el Tribunal en Pleno, por mayoría simple en los casos tercero y cuarto y por mayoría de las tres cuartas partes de sus miembros en los demás casos.

Artículo 24

Los Magistrados del Tribunal Constitucional podrán ser suspendidos por el Tribunal, como medida previa, en caso de procesamiento o por el tiempo indispensable para resolver sobre la concurrencia de alguna de las causas de cese establecidas en el artículo anterior. La suspensión requiere el voto favorable de las tres cuartas partes de los miembros del Tribunal reunido en Pleno.

Artículo 25

1. Los Magistrados del Tribunal que hubieran desempeñado el cargo durante un mínimo de tres años tendrán derecho a una remuneración de transición por un año, equivalente a la que percibieran en el momento del cese.

«Zin dagit (edo promes egiten dut) zintzoki gordeko eta gordearaziko dudala beti Espainiako Konstituzioa, leial izango natzaiola Koroari eta beteko ditudala konstituzio-magistratu gisa ditudan betebeharrak.»

22. artikulua

Konstituzio Auzitegiko magistratuzari berezko zaizkion inpartzialtasun eta duintasun printzipioen arabera jardungo dute Konstituzio Auzitegiko magistratuek beren funtzioan; ezin jazarriko zaie beren funtzioan dihardutela adierazitako iritziengatik; mugiezinak izango dira, eta ezin kenduko dira kargutik, ez aldi baterako ahalgabetu, ez bada lege honek ezarritako arrazoiren batengatik.

23. artikulua

1. Hauetariko arrazoiren bat behar da Konstituzio Auzitegiko magistratuek kargua uzteko: lehenik, uko egitea, eta Auzitegiko presidentek ukoa onartzea; bigarrenik, magistratu-aldia amaitzea; hirugarrenik, Botere Judizialeko kideen ezgaitasunerako aurreikusiriko arrazoiren bat gertatzea; laugarrenik, kargua hartu ondoren bateraezintasuna gertatzea; bosgarrenik, karguari dagozkion betebeharrak prestutasunez betetzeari uztea; seigarrenik, funtzioak eskatzen duen diskrezioa haustea; zazpigarrenik, doloagatik erantzule zibil deklaraturia izatea edo dolozko delituagatik edo erru larriagatik kondenaturia izatea.

2. Konstituzio Auzitegiko magistratuaren kargu-uztea edo kargu-hutsaldia presidentek erabakiko du lehenengo eta bigarren kasuetan, eta orobat heriotzakoan. Gainerako kasuetan, Auzitegiaren osoko bilkurak erabakiko du: gehiengo soilez, hirugarren eta laugarren kasuetan, eta kideen hiru laurdenen gehiengoaz, bestetan.

24. artikulua

Konstituzio Auzitegiko magistratuak aldi baterako ahalgabetu ahal izango ditu Auzitegiak, aurretiazko neurri gisa, auzipetze-kasuan edo aurreko artikuluan kargua uzteko ezarritako arrazoiatarikoren bat baden erabakitze behar den denbora doirako. Aldi baterako ahalgabetzeko, aldeko botoa eman beharko dute Auzitegiaren osoko bilkuraren hiru laurdenek.

25. artikulua

1. Gutxienez hiru urtez karguan jardun duten Auzitegiko magistratuek eskubidea izango dute urtebetez trantsizioko ordainsaria jasotzeko, kargua uztean jasotzen zutenaren balio berekoa.

